

HERNANIKO kronika

2004 urtea
Martxoak 30
Asteartea
Alea: 1063
www.kronika.net

■ ERRUGBIA

Hernanik pauso haundia eman du Ohorezko B mailara igotzeko, Galizian 11-27 irabazita

HERNANI azaina galanta lortzeko zorian da, igandean Coruña-ko Xestur taldeari 11-27 irabazita. Partidua ez zen ona izan eta bigarren zatian erabaki zuen Hernanik, lehenengo zati bukeran 5-3 galtzen ari baitzen. Hernaniarrak urduri xamar jokatu zuten eta defentsan oinarritu zuten beren jokoa. Buelako partidua datorren igandean jokatuko da Landaren, 12:00etan eta eta errugbi taldeak dei egin die herriarrei azaltzeko, azken urteetako partidurik garrantzitsuenara.

Jubenilek ere irabazi

Jubenilak Espainiako txapelketako final zortzirenak ari dira jokatzen eta Bartzelonako Sant Cugat taldeari 11-19 irabazi diote asteburuan, Cataluñan, joaneko partiduan.. □



Hernaniko errugbi taldea ligako partidu batean.

■ PELOTA

Hernani Berria txapelketatik kanpora gelditu da Zazpi Iturriri 2-1 irabazi arren

■ Tanteoa amezketarren aldekoa izan zen eta finala jokatzeke klasifikatu dira.

IGANDEAN jokatu zuten Hernanik eta Zazpi Iturrik Berria txapelketako finalaurrekoa eta Hernani finaletik kanpora gelditu zen, hiru partidutatik bi irabazi arren. Txapelketa honetan hiru partiduetan lortzen den tanteoa hartzen da kontutan eta Amezketa tanto gehiago atera zituen Hernanik baino eta finalean izango da. Kadeteetan Hernanik irabazi zuen 22-16; jubenetan, Amezketa 22-5; eta nagusietan, Hernanik 22-21. Aurreneko eta azkeneko partidua polita eta berdinduak izan ziren, baina, jubenetan Amezketa gehiago zela erakutsi zuen eta erraz gailendu zitzaion Hernaniko bikoteari. □



Erdozio dejada botatzen igandeko bigarren partiduan.

'Hizkuntza Eskubideak! Denon Konpromisoa!' kanpaina aurkeztuko dute gaur Biterin

HERNANIKO euskalgintzak antolatuta eta Kontseiluaren ekime-
nez, *Hizkuntza Eskubideak! Denon Konpromisoa!* kanpaina jarriko dute martxan eta gaur egingo dute aurkezpena, arratsaldeko 20:00-etan Biterin. Kanpainak hiru zutabe ditu: Akordio Soziopolitikoak, gizarte eragileen konpromisoak eta norbanakoen konpromisoak. Aurkezpenean Kontseiluko kide bat izango da kanpainaren nondik norakoak azaltzen. Bestetik, Hernaniko euskalgintzako kideek herri mailan egingo diren ekimenen berri emango dute. □

Osasunaren Astea Andragoton

ANDRAGOTOK Osasunaren Astea antolatu du eta hitzaldiak izango dira gaurtik ostiralera. Gaur *Arnasa ondo hartzeak sendatu egiten du* izeneko hitzaldia emango du Mar-
rijok Andragoton, 19:30etan (es-
terillak norberak eramanez). Asteaz-
kenean, Luis Ceballos terapeutak
bakardadeaz hitz egingo du *Bakar-
dadea. Gauza bera al dira gizakia
eta pertsona?* Ostegunean elikadu-
raz eta janari transgenikoaz hitz
egingo dute Lurdes Sarasola eta Ja-
bier Beloso Otarra Elkarteko ki-
deek. Azkenik, ostiralean, Maite
Gomez Zapiainek hitz egingo du
eta gorputz postuarekin buruz beste
heziketaren beharra aldarrikatu-
tuko du. □

Antzerkia Biterin

LANGILE Ikastolako 5 eta 6ga-
rren mailako ikasleek antzerkia
egingo dute gaur eta bihar Bi-
terin. *Kattalin belar sendagilea*
eta *Oporretara goaz Keniara*
obrak antzeztuko dituzte eta bi
saio izango dira: 15:00etan ikas-
toletako haurrentzako eta 19:00-
etan gurasoentzako. □



ALTZUETA
TOLARE - SAGARDOTEGIA

www.altzuetasagardotegia.com

Altzueta Sagardotegia S.L.
Osinaga Auzoa, 7 • 20128 Hernani
Tel./Fax: 943 55 15 02
e-mail: altzueta@altzuetasagardotegia.com

*Asteartetik
larunbatera
irekita*



*Apirilaren 3a
arte irekita*



ZUMETA
tailerrak
sport

Berriro ere zabalik

- Auto konponketak
- Errebisioak
- Pre-ITV

eta zure kotxeak
behar duen guztia

ZUMETA TAILERRAK
Karmelo Labaka 12 - HERNANI
Tel.: 943 55 46 92



ZUMITZA
TABERNA

Giro bikaina

BERRIRO ZABALIK

- Eguneroko menua
- Plater konbinatuak
- Ogitaratekoak
- Pintxoak

ZUMITZA Taberna - Nagusia 50



Udal Gobernuako zenbait kide joan den asteazkeneko Pleno Berezian.

Gobernu Batzarrak dio BHren mozioa ez duela aintzat hartu onartezina jotzen duelako Sanchizen heriotza EA, EAJ, IU, PSOE eta Aralarri leporatzea

■ Gobernuak argibideak eman ditu mozioarekin Plenoan gertatu zenaz ■ Korporazio berriak legealdi hasieran erabaki zuen mozioak Bozeramale Batzordean aztertzea.

BILDU Hernanik Kontxi Sanchizen heriotza salatzen duen mozioa eztabaidatzeko eskatu zuen joan den asteazkeneko Pleno Berezian. Gobernu Batzarrean gai horri buruzko bere iritzia eta zenbait argibide eman ditu. Batetik, Gobernuak dio "inork ez du esan *gai politikoa* delako, arazoari buruz udalak ez duenik ezer esan behar. Izan ere, Gobernu Batzarrak ez du gai hau alde batera utzi. Duela bi aste gure nahigabea agertu genuen eta gertatutakoa argitzearen aldeko azalpena egin genuen,

baita ere".

Bestetik, Udal Gobernuak adierazi du Korporazio berriak legealdi berriaren hasieratik erabaki zuela aurkeztu diren mozioak Bozeramaileen Batzordean eztabaidatzea. Eta, beste zenbaitetan ere, Bildu Hernaniren mozioak aipatu Batzordean eztabaidatu izan dira, Manu Azkarate presoaren egoerari buruzkoa esaterako.

Azkenik, Gobernu Batzarren esanetan, "nahiz eta herriko komunikabideetan agertu ez den, azken osoko bilkuran izandako eztabaidan argi

geratu zen, bestalde, Bildu Hernaniren mozioa zergatik ez genuen aintzat hartu eta botazioan jarri". Gobernuak argudiatu duenez, "onartezina da guretzat Kontxi Sanchizen heriotza EA, PNV, IU, PSOE, PP eta Aralar alderdiei leporatzea, mozioan egiten den bezalaxe, alderdi horietako zuzendari, kide edo botanteak kriminalak bailiran tratatuz. Hauxe da ordea errealitatea: Udala *joko politikoa* bideratzeko lekua da, baina irain eta difamazioak ez dira eztabaidagarriak bertan". □

Argia astekariaren 3 ale eta 'Luma' denborapasa etxean debalde jasotzeko aukera

■ 943-371545 telefonora deitu behar da horretarako ■ Informazio orria etxean jasoko dute hernaniarrek.

ARGIA astekaria itxuraz eta mamiz berritu zuten iaz eta hernaniarrek hiru asteetako aldizkariak eta *Luma* denborapasa-aldizkari bat etxean debalde jasotzeko aukera dute, hala eskatu ezker.

Xabier Letonak zuzentzen duen aldizkariak Argia eta Luma aldizkariak ezagutarazteko kanpaina egiten ari da Hernanin eta argibide guztiak iritsiko dira etxe guztietara.

Argiak "diseinu gaurkotuagoa du, itxura gazteagoa, informazioaren an-

tolaketa berritzailea... Iritzi saila ere zabaldu egin da eta aisialdia eta kultura nabarmendu egin dira. Dena helburu bakarrarekin; informazioa, analisia eta entretenimendua astero kalitatez eskaintzea euskal irakurleei".

Bestalde, Luma denborapasako aldizkari bakarra da euskeraz eta orain gazteentzako Lumatxo sail berezia du.

Eskaintza honekin Interesatuta daudenek, 943-371545 telefonora deitu. □

JUANTXO OTAÑO SAN SEBASTIAN

Martxoaren 28an hil zen

**Agur Juantxo,
amets berdinen ildotik
ibili ginen**

Hernani eta Urnietako lagunak

Hernanin 2004ko martxoaren 30ean

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943 464622
- ▶ Autobusak: 943 556662
- ▶ Anbulatorioa: 943 006666
- ▶ Jokalari anonimoak: 943 331103

☎ FARMAZIAK

- ▶ Egunez: Gomez Justel
Kale Nagusia 14
☎ 943 554892
- ▶ Guez: Gil
Lasarte. Nagusia 24
☎ 943 361529

IRAGARKI MERKEAK

Hernani inguruko jatetxe batean barrarako zerbitzari bat behar dugu. Ibilgailua behar da. Deitu: 943 55 02 54 (astelehenetik-ostiralerara) edo 608 12 07 32

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42)

KRONIKIA - Doberako komiki tailerreko lanen tarte



Roberto Dos Santos - FISIOTERAPEUTA
Kol. Zkia: 313

Fisioterapia
KIMERA

Fisioterapia zentru berria Antziolan

LESIO TRATAMENDUAK:

- Traumatologikoak
esgintzeak, kontrakturak,...
- Reumatologikoak
tendinitis, artrosiak,...
- Neurologikoak
hemiplejiak, paralisia,...
- Kirol lesioak
Fibra hausturak, sobrekargak,...

Istripu aseguruak eta etxeko atentzioa

KIMERA Fisioterapia - Antziola 16 behe (Guncaren aurrean) - Tel.: 943 556 427

TRATAMENDU TEKNIKAK:

- Osteopatia
- Eskuzko terapiak
- Elektroterapia
- Termoterapia: *ultrasonidoak, "onda corta",...*
- Masajeak: *terapeutikoak eta kirol masajeak*



mikel armendariz
proiektu eta instalazio
elektrikoak

Tel. 649 846 422
HERNANI

Barandiaran
Lizeoa

BATXILERGO
modalitateak

- Zientifiko-Teknikoa.
- Giza eta Gizarte Zientziak.
- Arteak.

ELEANITZA: Batxilergoa euskaraz eta ingelesez.

Jarduera irekiak: apirilaren 1ean, 19:00etan

tlf: 943213355 email: barandi02@ikastola.net

Manuel de Lardizabal 26 Donostia.